

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0001	"Abaroa" jubilatuta eta pentsionisten elkartean barne araudia	"Abaroa" jubilatuta eta pentsionisten elkartean barne araudia osatzen duten 12 artikulua dituen liburuxka.	01/12/1984	01/12/1984
LET0002	"Pentsamendu bat gogoratu yat", Urkiolako san Antonio santutegian abesten zen kanta	Zeanuriko Lexartza baserriko Jose Luis Atxotegik bildutako kantaren 24 estrofa eta partitura. Kanta Paduako san Antonioren bizia jasotzen du. Urkiolako santutegiaren sakristian kantatzen zitzaizen Arratiatik hurbiltzen ziren erromesei eta, badirudi, Basilio Etxebarria "Gorbeia" artzaianak kantatzen zuela.	01/12/1974	01/12/1974
LET0003	Francisco Mateo Agiriano Gomez, Calahorra-La Calzadako apezpikuak, Bolibar-Ugazuako san Migel parrokiara egindako bisita apostolikoan burutu zituen ekintzen transkripzioa	Dokumentuan transkribatzen dira Bolibar-Ugazuako san Migel parrokiako bi liburu ezberdinetako dokumentuak: Parrokiako 2. Bataio liburuko 195 atz. orrialdea eta Parrokiako Fabrika-kontuen liburuko 117 atz. orrialdea. Bi dokumentu horietan Pedro Moreno eta Luis Fernandez eskribauek jaso zituzten, Francisco Mateo Agiriano apezpikuak Bolibar-Ugazuara egindako bisita apostolikoan burututako ekintzak hauek: - Meza ospatu. - Hamabi ikasleri lehen tontsura egin. - Kalizak sagaratu. - Jose Diaz Agirianori fede aitortza eginarazi. - Hogei herritarri sendotza eman. Herritar horien amabitxi eta aitabitxiak izan ziren: Tomas Agiriano, Antonio Maria Agiriano, Tomasa Agiriano eta Vicente Agiriano. Garai hartako san Migeleko parrokoa zen Pablo Antonio Garai.	1799/06/13	1799/06/19
LET0004	Tolosako zezen festei buruzko datuak 1700 eta 1866 urteen artean. Eusko Ikaskuntzaren 9. kongresuko separata	Antxon Agirre Sorondok argitaratutako artikulua. Tolosako zezen festei buruzko datuak biltzen dira.	01/01/1984	01/01/1984
LET0005	Jose Maria Agirrebalzategiri buruzko datu biografikoak	Diario Vasco egunkarian Jose Maria Agirrebalzategiri buruz "Txema" Urzelai kazetariak argitaratutako berriak. Lehenengoan azaltzen da Argentinan, Txilen eta Uruguain euskal diasporari buruz emandako hitzaldiak. Bigarrenean, berriz, bere heriotzaren berria jasotzen da.	12/06/1980	28/02/1981
LET0006	Urari buruzko prentsa mozkinak.	Arrasateko euriteei buruzko datuak (1947tik 1975ra). Herriak izan dituen ur hornidura arazoak eta horiek konpontzeko hartutako erabakiak. Urkuluko urtegiaren sorrera, obrak eta ur zerbitzua. Atxikita dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ur hornidura eta saneamenduko Plan Orokorren liburuxka. Horrez gain Arrasateko kale izendegiari buruzko informazioa dago eta, baita, santa Barbara muinoko dragoiaren eskulturari buruzkoa ere.	01/10/1974	13/02/1987
LET0007	Lezetxi aztarnategi arkeologikoko indusketei buruzko informazioa	Lezetxikiko indusketa arkeologikoekin erlazionatutako hainbat dokumentu, tartean: -1957ko eta 1958ko indusketa ekinaldietan esku hartu zuten herritarren zerrendak. - Indusketa lanak burutzeko diruz lagundu zuten herritarren eta erakundeen zerrenda. - Indusketak izandako bost urteko atzedenaletia eta gero, lan arkeologikoak berriz ere martxan jartzeko, "Akixo" ezizeneko norbaitek, Lezetxikin 1927tik aurrera egindako lanen eta aurkikuntza arkeologikoen laburpena jasotzen duen testua. Lezetxikiko humeroa aipatzen du.	12/07/1957	01/01/1973
LET0008	Fray Pablo Alberdiri misiolariari buruz Aranzazu aldizkarian argitaratutako berria	"Aranzazu, Publicación Mariana del Santuario de Aranzazu" aldizkariaren 1954 urteko 352 zbk.-an argitaratutako artikulua mozkin. Bertan Pablo Alberdi misiolariaren biografian datu batzuk jaso dira, hala nola, bere pastoral lana Txinan eta Japonen eta bere heriotza.	01/01/1954	01/01/1954
LET0009	Aretxabaletako Cristobal Altube "Txindurri" tenoreari buruzko datu biografikoak	Aretxabaletako "Centro de Promoción Cultural ALKAR" elkarteak, herrian jaiotako Cristobal Altube tenoreari egindako omenaldiarako, jaso zen biografia laburra.	01/01/1970	01/01/1970
LET0010	Seber Altuberen jaiotzaren 100 urteurrena dela eta Euskaltzaindiak eta Arrasateko udalak egin zioten omenaldiarekin lotutako hainbat berriren mozkinak	Dokumentuan aipatzen dira: Seber Altuberi buruzko datu biografikoak, Arrasateko udalean egin zitzaion omenaldia eta biografia liburuaren aurkezpena eta, Arrasaten ospatu zen Euskaltzaindiaren IX Kongresuari (1979ko abenduaren 20-23 bitartean) buruzko xehetasunak.	22/09/1979	20/12/1979
LET0011	Seber Altuberen datu biografikoak, bibliografikoak eta bere izena daraman plazari buruzko xehetasunak biltzen dituzten prentsa mozkinak	Josemari Velez de Mendizabalek idatzitako "Seber Altube" liburutik eta baita Jose Letona eta Jose Antonio Aranari egindako elkarrizketatik jasotako Seber Altuberi buruzko datu biografikoak biltzen dituzten prentsa mozkinak. Horrez gain Seber Altube plaza berriari buruzko urbanizazio-obrak jasotzen dira. Bertan "Gernikako Arbola"-ren muskil bat landatu zen.	12/01/1977	25/08/1980

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0012	Guillermo Jose Altubek idatzitako Arrasateko deskribapen topografiko eta historikoaren originalaren kopia eta transkripzioa	Dokumentuan, Altubek, XIX. mende amaierako Arrasate deskribatzen du. Orografia, hidrologia, industria, nekazaritza, zerbitzuak, komunikabideak, ondarea, etab... zeintzuk ziren aipatzen ditu eta, horrez gain, herriko historiaren laburpena egiten du. Batez ere Erdi Aroko historiari dagokionez. Gehigarri bezala, Jose Letonak idatzitako Altuberen biografi laburra dago.	01/06/1903	01/06/1903
LET0013	Jesus Altuna paleontologoaren biografiari buruzko prentsa mozkinak	Prentsa mozkinetan aipatzen dira Jesus Altunak jasotako "Ibañez Martin Zientzia Ikerketarako" saria eta bere datu biografikoak.	15/03/1972	30/10/1983
LET0014	Txomin Amasorrain kultura eragilearen biografiari buruzko datuak	Bere interesak, antzerki munduarekin zuen erlazioa eta Arrasateko "Zarraoa" pilotariari buruz "Zeruko Argia" aldizkarian kaleratu zuen bitxikeria jasotzen dira.	28/12/1969	28/12/1969
LET0015	"Zarraoa" pilotariari buruzko Txomin Amasorrainek "Zeruko Argia" aldizkarian argitaratutako bitxikeria	Zeruko Argian kaleratutako "Tongo egitea aztu" artikulua. Bertan jasotzen da Zarraoa pilotari afizionatuak galdu behar zuen pelota partidu batean, bere buruari iruzur egitea ahaztu zitzaion pasarte.	28/12/1969	28/12/1969
LET0016	Pedro de Anasagastik Arrasateko Marcelino Aierbe Iñurrigarro fraideari buruz Errege Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen boletinean idatzitako artikulua	Marcelino Aierbe Iñurrigarroren formakuntza eta Txinan zein Japonian egindako misio-lana aipatzen dira.	14/10/1981	14/10/1981
LET0017	Pedro de Anasagastik Aramaioko Tomas Aspe apezpikuari buruz Errege Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen boletinean idatzitako artikulua	Aramaion jaiotako Tomas Aspe gotzaiak Bolibian eta Argentinan egindako misio-lanak aipatzen dira.	01/01/1967	01/01/1967
LET0018	Bedoñako Juane Iturbe Otadui, Kargalekuko artzainari egindako elkarrizketa	Bedoñako Juane Iturbe Otadui artzainari egindako elkarrizketa. Bertan Kargaleku (Aretxabaleta) inguruan burutzen duen artzain lana eta bizitza deskribatzen dira.	01/01/1970	01/01/1970
LET0019	"Romance de y para el sufrido Juan Español" poema satirikoa	Falange Española y de las JONS partiduak Opus Dei erakundearen kontra idatzitako "Romance de y para el sufrido Juan Español" poema satirikoa.	01/01/1970	01/01/1970
LET0020	Asturias lurraldearen mapa ANVko 2. batailoieren topografia sailak egina. Anuario Vascongadotik 1941-1942 urteko Arrasa	36ko Gerran, Acción Nacionalisata Vasca-ren 2. batailoiak, Euzko Gudarosteko "Eusko indarrak", Asturiasen egondako inguruko plano topografikoa. Planoan 1937 urteko Asturiaseko Las Regueras eta Grado kontzejuetako bideak, auzo-bideak, trenbideak eta ibaiak agertzen dira.	01/02/1937	01/02/1937
LET0021	Oñatiko Pampollo-ren bitxikeria eta edariari buruzko bertsoa.	"Sonrisas" izeneko anekdota. Bertan Oñatiko "Pampollo" jauzi eta suspertzeko pattarra erabili zuteneko pasarte jasotzen da. "Baskal-aurreko txurrutak", Joxemari Arabaolaza alkohola edateko ohiturari buruz idatzitako bertsoa.	01/05/1977	01/05/1977
LET0022	Jose Maria Araluze Villar-i buruzko datu biografikoak eta prentsa mozkinak	1976ko urriaren 4an, ETAren atentatu batean, hil zen Jose Maria Araluze notarioari buruzko datu biografikoak.	01/10/1976	01/01/1977
LET0023	Aramaiori buruzko datuak	Aramaioko monografia bat idazteko Jose Letonak bildutako hainbat datu: geografia, demografia, kultura, ondare historiko-artistikoa, ekonomia, industria, zerbitzuak, pertsonaiak, etab...	01/01/1977	01/08/1986
LET0024	Aramaioko Andre Mariaren Natibitate eta Ibabeko Andra Mari kofradien arau berriak	Dokumentuan biltzen dira Natibitate eta Andra Mari kofradien arau berrien originalen kopia.	02/09/1902	12/08/1914
LET0025	Arrasateko eta Aramaioko hainbat kondaira, pasarte historiko eta bitxikeri	Arrasate eta Aramaio inguruetako hainbat kondaira eta pasarte: Dragoiaren kondaira, Anbotoko Marirena, Iruatxetako eta Paula Arexola-Leiba-na, Arexolako zutoinean sartutakoarena.	1821/03/26	23/06/1971
LET0026	Aramaioko udalerrria inguratzen duten mendien zerrenda	Mendien izena eta garaiera zerrendatzen dira.	01/01/1979	01/01/1979
LET0027	Arrasateko Eskola Nazionalako ikasleen osasunari buruzko datu estatistikoak	Aranburu medikuak El Ferial, Erguin, Musakola eta San Andres eskoletako ikasleei egindako osasun azterketen datuak.	01/01/1985	01/01/1985
LET0028	Jose Letonak Jose Aranburuzabalari bidalitako gutuna esanez "Monografía de la Villa de Escoriaza" liburua itzuli behar zuela	Gutunaren bidez Jose Letonak informatzen dio "Monografía de la villa de Escoriaza" liburuaren itzultzeari buruz haren egileari, Jose Aranburuzabalari. Itzultzea azken horren anaiaren bitartez egin zen. Monografia, Letonak Jose Leibarrekin batera idatzitako "Valle de Léniz" lana dokumentatzeko erabili zen. Lan hori Donosti Aurrezki kutxak argitaratu zuen 1975ean.	21/05/1955	06/06/1975
LET0029	Kurutzebarri mendiaren jatorrizko izenari buruz Jose Aranburuzabalak uste zuena	Jose Aranburuzabalak Jose Letonari bidalitako gutunaren transkripzioa "Valle del Deba" liburuaren argitalpena dela eta, bai Letonari eta baita Juan Leibarri sortutako zalantzak argitzeko asmoz.	01/01/1975	01/01/1975
LET0030	Gipuzkoan jardun zen zeramikari bakarrari buruzko prentsa mozkinak.	"Diario Vasco"-ko artikuluan, Zegamako Gregorio Aramendi zeramikariaren lana deskribatzen da.	24/02/1980	24/02/1980

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0031	Jose Letonak eta Juan Leibarrek, "kurtzebarri" liburuaren argitalpena dela eta "Egin" egunkariko kazetariari emandako elkarrizketa	Jose Letona eta Juan Leibarrek azaltzen dute "Kurtzebarri" liburuaren sorrera eta lan hori, zein beste ikerketa batzuk burutzeko, jarraitzen duten metodologia.	01/01/1978	01/01/1978
LET0032	Juan Arana Ezpeleta "Loramendi"ren biografia laburra	Erein argialetxeak kaleratutako Juan Arana Ezpeletari buruzko liburuxka eta, lan horren biografia argitaratu ahal izateko, Jose Letonak idatzi zituen bertsioak eta beste dokumentu lagungarriak. Horrez gain, dokumentuak, Arrasateko planoak eta eskolei buruzko datuak ditu.	01/01/1983	01/01/1983
LET0033	Felix Aranoren biografiari buruzko prentsa mozkina.	Felix Aranoren 50 urteurrena dela eta "Diario Vasco"-n argitaratu zen berria.	26/04/1979	26/04/1979
LET0034	Rafael Aritza Etxezarretak dohaintzan emandako liburuen zerrenda Biteri eskolako liburutegiari.	Rafael Ariza arrasateak Biteri Eskolako liburutegiari dohaintzan emandako 145 liburuen izenbuak. Zerrenda Felix Aranok jaso zuen.	30/07/1910	30/07/1910
LET0035	Aranzadi Zientzia Elkartearen "Anuario de Eusko Folklore" aldizkarian artikulua aurkezteko arauak	Aranzadi Zientzia Elkartearen "Eusko Folklore" aldizkarian artikulua originalak argitaratzeko bete behar diren 17 arauak jaso dira. Gainerea, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen "Aranzadi Natur zientzen taldearen" liburuxka bat gehitu da. Bertan taldearen lan ildoak adierazten dira: Nekazaritza, Botanika, Ehiza, Espeleologia, Ornitologia, Etnografia, Landaretza, Geologia, Mineralogia, Paleontologia, Iktiologia, Museoa, Historiaurrea eta Naturaren babesa.	30/09/1978	30/09/1978
LET0036	Aranzadi Zientzia Elkartearen Gipuzkoako Toponimia lana egiteko jarraitu beharreko metodologia	Aranzadi Zientzia Elkartearen Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat burutuko duen toponimia lanaren metodologia, lantaldea, fitxa mota eta ortografia arauak.	22/02/1983	22/02/1983
LET0037	"Euskalerrriaren alde" aldizkarian argitaratutako "A proposito de una paridera" artikulua transkripzioa	Telesforo Aranzadik, 1919an "Euskalerrriaren alde" aldizkarian argitaratu zuen "A propósito de una paridera" artikulua transkripzioa.	01/01/1970	01/01/1970
LET0038	Hainbat arrasatearren nota biografikoak	Arrasaten jaiotako hainbat pertsonai historikoen biografia, tartean Juan de Araoz de Uriarte, san Frantzisko komentuari buruzkoak eta Juan de Mondragon, Santiagoko katedralaren kalonjea.	01/01/1970	01/01/1970
LET0039	Udalaren san Joan irudiari buruz Jose Letonak, Arrasateko udal artxiboan, bildutako datu historikoak	San Joan jaietan ospatzen den Salbean, udaletxetik prozesioan ateratzen den irudiari buruzko datuak. Irudiaren egilea Juan Munar izan zen, Andak Untzillako Vicentek egin zituen eta polikromatu zutenak Antonio Ximenez eta Mariano izeneko erretratzaileak izan ziren.	1762/01/01	1766/03/31
LET0040	Jose Letonak Arrasateko udal artxiboan bildutako datu historikoak Gesalibarko hilerriari buruzkoak eta Arrasateko san Frantzisko komentuari buruzkoak	Jose Letonak Arrasateko udal artxiboan bildutako datuak Gesalibarko hilerriari buruz eta san Frantzisko komentuari buruz.	1671/07/27	29/09/1966
LET0041	Arrasateko Gipuzkoako metalurgia-langileen sindikatua eratzeko alkateari helarazitako eskaeraren transkripzioa	Jose Letonak Arrasateko udal artxiboan herriko Gipuzkoako Metalurgia-langileen sindikatoari buruz bildutako datuak. Tartean Evaristo Arzamendi eta Jose Leoz, sindikatoko bazkideen izenean, Arrasateko alkateari luzatutako biltzeko eskaera. Bilera sindikatua eratzeko eta gobernu batzordea aukeratzeko ospatuko zen, Olarte kaleko pisu batean. Horrez gain, Union Cerrajera enpresako leuntzaileei zortzi ordutako lan jardunaldia mantentzeko eta langilei soldatak igotzeko, sindikatuak argitaratutako manifestua dago.	13/07/1919	11/10/1919
LET0042	Arrasateko udal artxiboan gordetzen diren kaperatasun espedienteak eta baimendutako kopiak	Arrasateko udal artxiboan dauden kaperatasun espedienteak alfabetikoki ordenatuta. Horrez gain Martin Isasi Isasmendiren, Marcos Larrañagaren, Francisco Larrañagaren eta Erguin familiaren datu genealogikoak daude.	07/03/1961	07/03/1961
LET0043	Arrasateko udaletxea eta san Joan parrokia lotzen zituen lurpeko pasabideari buruzko datuak	Hirugarren karlistaldian, Arrasate defendatzeko, udaletxea eta san Joan parrokia lotzen zituen lurpeko pasabidea eraikitzeko udal agindua jasotzen duen aktaren transkripzioa. Horrez gain, Arrasateko herriko plazan, 1927an, egindako berrikuntza obraren ondorioz, pasabidean gertatutako istripu bat aipatzen da.	1873/04/24	01/01/1927

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0044	Erdi Aroan hasi eta XIX. mendea arte Arrasateko historiarekin erlazionatutako apunte eta transkripzioak	Arrasateko udal artxiboan gordetzen diren eta, herriko historiarekin erlazionatuta dauden, hainbat dokumenturen apunteak eta transkripzioak. Tartean: Gaztelako erregeek Mondragon hiribilduari XIII eta XV mendeen artean emandako erregalien zerrenda, Gonzalo Martinez katedradunak egiaztatutakoa. Udalako apaizak, Juan Santos Guridik, 1712. urtean, Juan Azkonizagaren, Mariana Oleagaren eta haien semeen aurka irekitako auzi-kriminala apaiza mehatxatzeagatik. Arrasateko udal-ordenantzak (1807) Arrasateko bizitza arautzen zuen ediktoa San Frantzisko komentuko zaindariak, meza ospatzean, herritarrei jakinarazi beharreko. Espainiako Felipe IIIa, 1615ean, Arrasatek igarotzean ekarri zuen segizioa. Jose Letonak eta Juan Leibarrek idatzitako "Valle de Léniz" liburuan gehitu beharreko eranskina. Hirugarren Karlistadaren ondoren, 1876aren uztailaren 21eko Foru Deuseztapenaren legearen ondorioz, Espainiako ejerzitoara deituak izan ziren Arrasateko gazteen zerrenda (1877).	1262/08/04	1877/05/30
LET0045	Salturri etxearen jabetza-hartzea, Jose Berezibar Lekerika bere amaren, Josefa Lekerika Salturriren izenean.	Salturri etxearen jabetza-hartzearen transkripzioa. Jabetza-hartzea Jose Berezibarrek egin zuen, Jose Lekerika Salturriren semerik zaharrena, bere amaren izenean, etxea Josefa Lekerikaren ondasunen kontrako hartzekodunen konkurtsotik kanpo gelditu baitzen.	1716/12/14	1716/12/15
LET0046	Ezkontza-kapitulazioaren transkripzioa Valentin de Oianguren eta Teodora Berezibarren artean.	Salturri baserriko Teodora Berezibarren eta Elgetako Valentin Oiangurenen arteko ezkontza-kapitulazioaren transkripzioa.	1692/12/28	1692/12/28
LET0047	Simancas-eko artxiboan burdinarekin zerikusia duten dokumentuen deskribapena	Euskal Herriko eta Burgoseko burdinolekin eta burdinaren transformazio eta salmentarekin erlazionatuta dauden hainbat dokumenturen deskribapena.	1478/07/13	1493/11/15
LET0048	Bilboko alkateak, Jose Maria Areiltzak, ejerzito Nazionalari emandako hitzaldia 1937ko uztailaren	Bilboko hiria Espainiako Ejerzito Nazionalaren eskuetan jauzi ondoren, hiriko alkateak, Jose Maria Areiltzak "Coliseo Albia" antzokian emandako hitzaldia Ejerzito Nazionalari eta Milizia Nazionalei 1937ko uztailaren 1ean.	01/07/1937	01/07/1937
LET0049	Gabriel Arestik, Pedro Ignacio Barrutiari buruz argitaratutako datu biografikoak eta "Gabonetako ikuskizuna"	Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako "Primera aportación para el conocimiento de la vida y obra de Pedro Ignacio de Barrutia y Basagoitia (1692-1759)" artikularen faksimile-edizioa. Argitalpena Pedro Ignacioren jaiotzaren hirugarren mendeurrena ospatzeko argitaratu zen eta bertan, 1960. urtean, "Euskara" aldizkarian, Gabriel Arestik argitaratutako testua eta "Gabonetako ikuskizuna" jasotzen ziren.	01/01/1982	01/01/1982
LET0050	Aretxabaletako bainuetxeen eta Eskoriatzako bainuetxearen litro bakoitzeko ur dituzten konposatu kimikoak	Aretxabaletako bainuetxearen, Otalora bainuetxearen eta Eskoriatzako bainuetxearen litro ur bakoitzeko dituzten konposatu kimikoen zerrenda. Horrez gain Aretxabaletako bainuetxearen informazioa eta baliabideen deskribapena dakar.	01/01/1900	01/01/1900
LET0051	Espainiako konstituzioaren (1978) alea	Espainiako korteek 1978ko urriaren 31 onartu eta herritarrek 1978ko abenduaren 6an berretsi zuten konstituzioaren kopia helebiduna.	06/12/1978	06/12/1978
LET0052	Arlabango mendatean gertatutako batailak	Arlabango mendatean gertatutako batailei buruzko apunteak. 1811an, Espotz Minak Napoleonen tropak garaitu zituen. 1813an, Espotz Minak Napoleonen tropak berriz ere garaitu zituen. 1836an, Nazario Egia general karlistak tropa liberalak garaitu zituen.	1811/01/01	1836/01/19
LET0053	Domingo Arzamendiri buruz "Deia" egunkarian argitaratutako prentsa mozkina	Domingo Arzamendiren, Arrasateko alkate ohiaren, heriotza zela eta Deia egunkarian argitaratu zen biografia laburra jasotzen duen prentsa mozkina.	30/10/1979	30/10/1979
LET0054	Juan Artzamendiri buruzko datu biografikoak	Juan Artzamendi musikariari buruzko datuak biltzen dituen dokumentua, tartean: bere formakuntza, Arrasateko Musika Bandarekin izandako erlazioa eta bere konposizioak.	01/01/1980	01/01/1980

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0055	Arrasateko kale izendegiari, pertsonai historikoei eta jauregiei buruzko datu historikoak.	<p>Arrasateko biztanleriaren eboluzioa, kale, pertsonai eta eraikinei buruzko hainbat datu, argazki eta plano biltzen dituen dokumentua.</p> <p>Kale izendegiari buruzko datuak "Mondragon sus calles" liburuarekin erlazionatuta daude.</p> <p>LET0055_00001: Foruen plazaren hirigintza lanak, Arrasateko gurutzadura eta burdinolari buruzko datuak.</p> <p>LET0055_00002: Arrasateri buruz Jose Maria Donostyk argitaratutakoa. Indalecio Oiangureneg egindako argazkia du: "Iturriotz atea".</p> <p>LET0055_00003: Arrasateko edo Arrasaten jatorria zuten pertsonaiei buruzko prentsa mozkinak (Iturria: Jose Maria Uranga)</p> <p>LET0055_00005: Arrasateko burdinolak (Iturria: Jose Maria Uranga)</p> <p>LET0055_00007: Jose Luis Iñarra, Arrasateko parrokoaren heriotzaren inguruko dokumentazioa eta datu biografikoak.</p> <p>LET0055_00010: Jose Maria Arizmendiarieta apaizaren heriotzaren inguruko dokumentazioa eta datu biografikoak. LET0051 dokumentuan falta zena izan daiteke (Argazkia du).</p> <p>LET0055_00012: Gesalibarko Eriz-Arana anai-arrebak, Antonio Canovas del Castilloren hilketaren lekukoak (Argazkiak ditu).</p> <p>LET0055_00015: Gregorio Solabarrieta Arrasateko Musika Bandaren zuzendariaren heriotza eta datu biografikoak.</p> <p>LET0055_00016: Ignacio Galdos misiolari jesuitari buruzko datu biografikoak.</p> <p>LET0055_00017: Garibairen irudiaren grabatua (Becerro), sortetxearen eta armariaren grabatuak.</p> <p>LET0055_00019: Ines Ruiz de Otalora "Amandre Santa Ines"-en momiarene aurkintzari buruzko informazioa.</p> <p>LET0055_00022: Pedro Ignacio de Barrutiaren omenezko Euskal Disko eta Liburu Azokaren kartela.</p> <p>LET0055_00023: Herriko biztanleria 1877-1986 artean.</p> <p>LET0055_00024: Euskararen erabilerari buruz.</p> <p>LET0055_00025: Esteban de Garibairen genealogia eta haren etxea eraisteko dagoen arriskua.</p> <p>LET0055_00027: Asensio Bañezek eraikitako Bañez de Artazubiaga etxea eraisteko dagoen arriskua eta etxe berriak eraikitze erabakia. Bañez Jauregiaren aurrealdeko fatxada eta atzealdeko galeriaren argazkiak ditu.</p> <p>LET0055_00029: Jose Maria Resusta "Maixor"-en datu biografikoak, jauregiaren eraikitzea eta Iturriotz kaleari buruzko datuak. Etxean burutzen ziren obren argazkia du.</p> <p>LET0055_00030: Beheko portaleko "Portalo" obrak eta eraikitze prozesua. Atea eutsita eta Ferrerías 1 zbk. etxea eraitsia erakusten duen argazkia.</p> <p>LET0055_00031: Osteko etxea eraisteko prozesua eta eraikinaren jatorria. Argazkiak ditu</p> <p>LET0055_00033: Juan Carlos Gerra eta Gerra-Enea etxeari buruzko datuak. Etxearen armariaren grabatua eta Monterron jauregiaren zeramikaren argazkia du.</p> <p>LET0055_00034: Arrasateko Eskubaloi taldearen igoera Espainiako bigarren mailara. Argazkiak ditu.</p>	1877/12/31	01/03/1989

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0056	Arrasateri buruzko gaiak: politika, zerbitzuak, kultura eta kirola	<p>LET0056_00001: Arrasateko udal eta mankomunitateko hiltegiei buruzko informazioa.</p> <p>LET0056_00003: Arrasateko udal azokaren araudiaren 75 artikulua (1954).</p> <p>LET0056_00012: Colombiako Cartagena de Indias portugaldarren erasotik babesten izan zen Juan Bautista Barrutia arrasatearrari buruzko informazioa, Lleras lehendakariak Espainiako gobernuari hiria zaharberritzeko egindako eskariaren harira.</p> <p>LET0056_00013: Arrasaten 1968ko apirilaren 14an ospatu zen manifestaldian atxilotutakoak ez epaitzeko eta Guardia Zibilek erakutsitako jarrera zalatzeko, Arrasateko alkateari herritar talde batek bidalitako gutuna.</p> <p>LET0056_00014: Jose Luis Iñarra eta Jose Maria Arizmendiarieta pasealekuak sortzeko herritar ekimena. Udalari helarazi zitzaion atxikimendu formularioa du. Gainera, udalak Zaldibarren eraiki nahi zuen pilotaleku berriari buruzko aipamena egiten da.</p> <p>LET0056_00017: Javier Untzurrunzagak Siadeco-rentzat egindako "Mondragon y su futuro" lanaren ondorioak jasotzen dituen prentsa mozkina.</p> <p>LET0056_00019: Etxaluzeko, Iturrieko eta Maalako futbol zelaien eta herriko futbol taldeen historia.</p> <p>LET0056_00023: Arrasateko zabor arazoak eta "W konposta". Akeiko zabortegia.</p> <p>LET0056_00025: Arrasaten "Errobi-Patxi Billamor" festibalean gertatutako istiluei, santo Tomas jaiei, Jokin Zaitegiren omenaldiari eta deialdi berriko gazteen agurrei buruzko informazioa.</p> <p>LET0056_00026: Etxarri Aranatzan ospatuko zen euskal preso eta euskararen aldeko alkateen batzarra eta Arrasateko udalean ikurriña jartzeko ekitaldia.</p> <p>LET0056_00030: Zaldibarren pilotaleku berria eraikitzeko udal erabakia.</p> <p>LET0056_00031: Musakolako udal kiroldegiaren inaugurazioari eta udal igerilekuari buruzko informazioa.</p> <p>LET0056_00034: San Juan jaiei buruz Mikel Azkoagak idatzitakoa.</p> <p>LET0056_00035: Arrasatearrek Arantzazura egiten duten erromesaldiaren historia.</p> <p>LET0056_00036: Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsionisten elkarteak Donostian egindako manifestazioa, erretiro-pentsioen igoera eskatuz. Horrez gain elkarteak idatzitako manifestua du.</p> <p>LET0056_00040: Eskola Profesionalak 1979. urtean Valentziara egindako ikasketa bidaiaren informazioa.</p> <p>LET0056_00044: Auzo alkateak aukeratzeko hauteskundeak eta Bedoñan sortutako arazoak.</p> <p>LET0056_00046: Iñaki Herrero Moreno futbol jokalariaen bat-bateko heriotzari buruzko informazioa eta bere futbol salako Iñaki Herrero I. Memorialaren emaitzak.</p> <p>LET0056_00050: Arrasateko san Juan parrokiako eta Elgetako parrokiako kanpaiei buruzko informazioa.</p> <p>LET0056_00051: Fernando Cristobal zinegotziaren dimisioa eta Euskal Autonomi Erkidegeko Estatutua onartzeko bozkatutako erreferendumaren</p>	01/01/1954	28/08/1986

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0056	Arrasateri buruzko gaiak: politika, zerbitzuak, kultura eta kirola	<p>LET0056_00051: Fernando Cristobal zinegotziaren dimisioa eta Euskal Autonomi Erkidegeko Estatutua onartzeko bozkatutako erreferendumaren emaitzak Arrasaten.</p> <p>LET0056_00052: Debagoienerako udalarrinen euri tasak 1980ko maiatzean.</p> <p>LET0056_00053: Etxezarretako Sagasti etxeren sutea eta Rafael Aritzaren biografia.</p> <p>LET0056_00054: Arrasateko udaletxeko sotoan agertutako animalia hezurak eta udala parrokiarekin lotzen zuen pasabideari buruzko datuak.</p> <p>LET0056_00055: Gaitz kardiobaskularrak saihesteko "Plan Mondragon"-en aurkezpen ofiziala.</p> <p>LET0056_00056: Hauteskundeetan parte hartzeko hauteskunde erroldak izandako erreklamazioak, Tomas Hernandezen kartel erakusketa, Arrasateko udaletxeko kataien lapurreta eta Jose Letonak egindako katai berrien donazioa eta Udalatxera igoera patinekin.</p> <p>LET0056_00057: RTVE-ko "Usted por ejemplo" saioak egindako STAK Arrasateko jubilatuen gimnasia taldearen erreportajeari buruzko informazioa.</p> <p>LET0056_00058: Arrasateko osasun eta gizarte zerbitzuei buruzko historia: sendagilea, botikak eta inklusa.</p> <p>LET0056_00059: Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak antolatuta Euskadiko II Berritsu Txapelketa.</p> <p>LET0056_00060: Biatoristen historia Arrasaten eta san Biator ikastetxea ikastola bihurtzeko prozesua.</p> <p>LET0056_00061: San Juan jaietako (1985) erraldoi eta kilikien konpartsaren aurkezpena, Florencio Pinachori omenaldia eta jai egitaraua, tartean III Fanfarreen alardea.</p> <p>LET0056_00063: Urkuluko uren ekarriera Arrasatera eta oposizioko partiduen udal gobernuari leporatutako erabilera elektoralak.</p> <p>LET0056_00065: Zarugalde kaleko historia: san Agustin jaiak, Errukizko Amaren komentua, Zabala burdinola eta okindegiak.</p> <p>LET0056_00066: Jose Letonak Arrasateri buruz idatzitako "Algunos apuntes históricos e itinerario turístico monumental" turismo gidaren aurkezpena eta aurrekontua. Herriari buruz kaleratutako zen postal bilduma ere aipatzen da.</p> <p>LET0056_00070: Jose Letonak idatzitako Arrasateko historiaren laburpena.</p> <p>LET0056_00071: Iñaki Linazasororen Arrasate-Aramaio-Aretxabaleta-Arrasate 32 km-tako ibilbide turistikoa.</p>	01/01/1954	28/08/1986
LET0057	Arrasateko erraldoi konpartsa berria	<p>Erraldoi konpartsa berria aurkezteko egindako liburuxka. 1985/06/23an lehen aldiz irten ziren kalera erraldoi konpartsakoak.</p> <p>LET0057_00003: Historia. Mondragon hiri- gutun izendatzea, herensugearen kontakizuna.</p> <p>LET0057_00008: Arrasateko gerla aurrean Arrasateko egoera historikoa.</p> <p>LET0057_00009: "Doke" jokua . Arrasateren erreketak, erraldoi eta buru-haundien pertsonaiak deskribatzen dira.</p>	01/01/1985	01/01/1985
LET0058	"Arrasate Musikal" eta beste orkestra eta musikoen emanaldiak. Arrasate Musikal musika eskolaren 10. urteurrena.	<p>LET0058_00001: Donostiako Ganbera-orkestrak eta Orfeoak Arrasaten eskainitako emanaldi bateratua.</p> <p>LET0058_00004: Bilboko Orkestra Sinfonikoak Arrasaten eskainitako emanaldia.</p> <p>LET0058_00005: Arrasate Musikalek eskainitako kontzertuak, Bordelen, Gasteizen eta Londresen.</p> <p>LET0058_00009: Arrasate Musikaleko 10. urteurrena ospatzeko eskainitako kontzertua, Nicanor Zabaleta parte hartzen du.</p> <p>LET0058_00010: Ivo Pogorelich pianistak Gurea zineman eskainitako emanaldia.</p> <p>LET0058_00011: Arrasate Musikal Orkestrak Europan eskainitako emanaldiak, Munichen eta Italian.</p> <p>LET0058_00013: Arrasate Musikal eskolari buruz informazioa, tartean Sofia erreginari egindako bisitaren argazkia eta ikasgela berrien inaugurazioa.</p> <p>LET0058_00016: Arrasateko "I Eskultura Symposium" ekimenaren itxiera.</p>	04/11/1979	10/08/1985
LET0059	Felipe Arrese Beitiaren "Uri kondaira andiko bat".	<p>Arrasate herriaren informazioa jasotzen duen lana. Felipe Arresek Arrasateko Udaletxean aurkeztu zuen euskaraz, 1896 urteko Euskal Jaien harira eta saria jaso zuen.</p> <p>Jose Maria Urangak egindako itzulpena, Letonak kopiatuta.</p>	1896/07/06	1896/07/06
LET0060	Felipe Arrese Beitiak idatzitako "Sermon para la primera misa de d. Francisco Imaz Olasagasti (don Paco)"	<p>LET0066_00001: Arresek hileta elizkizunetarako eskuz eta euskaraz idatzitako sermoia.</p> <p>LET0066_00005: Francisco Imazen eta Felipe Arresen datu biografikoak.</p> <p>LET0066_00006: Francisco Imaz Olasagasti abadearen datu biografikoak.</p>	01/01/1900	01/01/1900

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0061	Simon Arrieta pintorearen datu biografikoak, lanak eta prentsa mozkinak.	LET0061_00001: Bergaran eta San Telmon Simon Arrietaren omenez egindako erakusketa. LET0061_00006: Simon Arrietaren heriotzaren inguruko prentsa mozkinak eta bere bizitzaren datu biografikoak. Tartean Juan San Martinek prentsan euskaraz idatzitako artikulua. LET0061_00010: Eibarko artistak Arrietari eskainitako omenaldiaren programa. LET0061_00012: Madrilen 1952ko erakusketaren datuak eta prentsan argitaratutako kritikak. LET0061_00025: San Telmon eta Bergaran Arrietari egindako erakusketa omenaldiaren liburuxkak.	01/01/1950	29/11/1971
LET0062	Enrique Arrillaga Lopez Puigceber koronelaren datu biografikoak.	Arrillaga koronela Madrilen bizi zen baina uda Aramaion pasatzen zuen. Cesario Aginagalde Lezeta gazte aramaioarrak beretako egin zuen lan 20. hamarkadan. Fusilamentu baten datuak agertzen dira, ez dago argi noren datuak diren.	01/01/1970	01/01/1970
LET0063	Francisco de Paula Maria Arrillaga Garro aramaioarren datu biografikoak.	Francisco Arrillaga Iruñan jaio zen 1870ean eta Aramaioko Udalak 1909an herriko semea izendatzen du, herriari eta bailarari eskainitako laguntzagatik. Enrique Arrillaga koronelaren aita zen. "Datos para una Monografía de Aramaiona" Letonaren lanarekin lotuta dago.	01/01/1970	01/01/1970
LET0064	Jose Manuel Arriolak, Mondragoiko kalezaina, idatzitako bertsoak eta jubilatzen zeneko prentsa mozkinak.	LET0064_00001: Aguazil lanen jubilazio hartu zuenean prentsan iragarritakoa eta berak idatzitako bertsoak. LET0064_00004: Dorletako amari idatzitako bertsoak, Andra Mari santutegitik Gatzagako elizara eramanean. LET0064_00005: Jose Letonari idatzitako bertsoak 1976ko sanjoanetan. LET0064_00006: Jose Maria Arizmendiari abadea eta Jose Luis Iñarra parrokoa hil zirenean idatzitako bertsoak. LET0064_00008: Fray Rufinori idatzitako bertsoa. LET0064_00009: "Danekin bizi bear" idatzitako bertsoa. LET0064_00010: Francisco Gorosabeli, Patxi Axerikuari, idatzitako bertsoak. LET0064_00011: "Jai nagusiak Arrasaten" idatzitako bertsoak.	22/06/1976	02/01/1982
LET0065	Jose Martin Arrue frantziskotarraren jaiotzaren ehun urteurrenari buruzko prentsa mozkinak	Aita Arrue frantziskanotarra musikaria eta idazlea zen eta bere datu biografikoak azaltzen dira, jaiotza, musika obrak, idatziak eta apaiz egondako lekuak.	01/05/1984	01/05/1984
LET0066	El Tebib Arrumiren "La epopeya de Irun" eta "Guipúzcoa por España" liburuak.	"Biblioteca Infantil" izeneko "La reconquista de España" bildumaren bi atal. 1936ko gerran Espainiako ejerzitoak egindako garaipenak kontatzen ditu. LET0066_00001: 1936ko uztailen Irun okupatzeko tropa Frankistek egin zutena goraiatzeko da. LET0066_00002: Irun okupatu eta gero, Gipuzkoa barrenera sartzeko tropa Frankisten guduak goraiatzeko da.	01/05/1940	01/11/1940
LET0067	Mariano Juaristi Mendizabal "Atano III"-ren biografiari buruzko prentsa mozkinak	Jose Luis Zubiarrek "Atano III"-ren inguruen idatzitako artikulua. "Atano III" pelotariaren 80. urteurren egunean bere ibilbidearen garaipenak aipatzen dira. Azkoitiako "Betiz-Poz" elkartekoek omenaldia eskaini eta urrezko intsignia jartzen diote.	21/02/1984	21/02/1984
LET0068	Jose Martin Arrue frantziskotarraren datu biografikoak.	Auñamendi Euskal Entziklopediatik ateratako informazioa. Aita Arrueren jaiotza, egindako musika obrak eta heriotzaren data, datu hau eskuz idatzita.	01/01/1980	01/01/1987
LET0069	Orkatzategi mendiari buruz Club Deportivo Eibarrek idatzitako informazioa.	Jatorria Auñamendi Euskal Entziklopedia. Orkatzategi (861 m.) mendira joateko ibilbidea azaltzen da, Aretxabaletatik Oinatira, Aitzulo eta San Elias kobazuloetatik pasatuz. Ibilbidearen leku ezberdinekin lotutako historia kontatzen da: Urrejola-Garay lepoko guduak, Lope de Agirreren jaioterria, Sancho García Garibayek ezkutatu zen lekua San Eliasen eta Oinatiko Corpus dantza.	01/01/1970	01/01/1979
LET0070	Aramaioko monografia bat idazteko herriko erroldaren datuak	Aramaioko eta Arejola, Azkoaga, Barajuen, Etxaguen, Gantzaga, Olaeta, Untzila eta Uribarri auzoetako 1965eko eta 1975eko erroldaren datuak azaltzen dira. Baita herriko erdi gunetik auzo bakoitzera dagoen distantzia.	13/02/1979	13/02/1979
LET0071	Tellamendiko gurutzaren leherketaren berri ematen duen Jose Maria Fernandez de Alegria Aramaioko udal idazkariaren ziurtagiria.	1977ko urtarrilaren 1ean Tellamendi eta Murugainen gurutzetan ikurriña bana agertu eta gero, Tellamendin bonba bat zegoelako Guardia zibilak leherarazi egin zuen. Horren ondorioz Tellamendiko gurutzea jauzi zen. LET0071_00001: Udal idazkariaren ziurtagiria gertatutakoa eta erabakitakoa azaltzen da. LET0071_00003: Planoa: Tellamendiko gurutzea. LET0071_00005: "Belamendiko gurutzea" kantuen partitura. LET0071_00006: "Belamendiko gurutzea" bertsoa.	01/01/1977	01/01/1978

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0072	Arrasaten jasandako sute bat itzaltzen laguntzeagatik, herriak Mariaren irudia, urtero, irailean prozesioan ateratzeko hartutako erabakia jasotzen duen dokumentuaren transkripzioa	Sutea itzaltzen laguntzearen, herriko biztanleek konpromisua hartzen dute Mariaren irudia prozesioan ateratzeko herriko kalean zehar, urtero irailaren Ama Birjinaren egunean. Santa Agedak sutetik eta beste gaitzetik herria babez dezan, onartzen dute urtero Santa Ageda eguna jaia izatea herrian, eta egun horretan meza ematen abade bat Gesalibarko Santa Agedako elizara joatea. Arrasateko Udal eskritura kopien liburutik jasota. Juan de Alzartek udal eskribanoak idatzitako dokumentuaren transkripzioa.	01/01/1970	01/01/1979
LET0073	Arrasateko alkateen zerrenda (1890-1983). 1936ko gerra aurreko eta ondorengo udal agintariak.	LET0073_00001: Arrasateko alkateen zerrenda (1890-1983). LET0073_00006: Arrasateko agintariak 1920an. LET0073_00007: 1936ko azken udal batzordearen eta 1937ko urriaren 7an eratu zeneko lehenengo udal batzordearen agintarien izenak. LET0073_00008: 1936ko urriaren 19an Elorrioren egin zen Arrasateko Udal Batzorde Errepublikanoaren eraketaren akta. Plenoan gerraren ondorioz hartu ziren erabakiak azaltzen dira.	01/01/1970	01/01/1979
LET0074	Arrasateko hirigintza eta eskulturgintzarekin lotutako dokumentuak.	LET0074_00002: 1929. urteko kintoak. LET0074_00003: Garagartzako lamiaren eskulturaren proiektua, laminaren ipuina eta eskulturaren bozetoak daude. LET0074_00006: Nazioarteko eskultura I. Symposiumaren liburuxka. LET0074_00019: Nazioarteko eskultura II. Symposiumaren liburuxka. LET0074_00031: Hargina ofizioaren historia, jatorria eta lan egiteko antolaketa. Arrasateko hargin famatuen izenak. LET0074_00033: Nazioarteko eskultura II. Symposiumaren aurkezpena parte-hartzaileen izenekin. LET0074_00035: Arrasateko udalaren liburuxka. Udal batzordeak, batzorkideak, 1984erako aurrekontua eta 1987 urtera arte egiteko diren inbertsioen informazioa jasotzen du. LET0074_00040: Arrasateko udalerriko plangintzaren ordezkatzeko araudiaren aurreramenduen laburpena, Udal Plenoak 1981eko uztailaren 24an onartutakoa. Arrasateko Udalak inprimatutako liburuxka.	01/01/1913	01/01/1987
LET0075	Arrasateko udaletxearen bigarren mendeurrenaren dokumentua.	Udaletxeko bigarren mendeurrena betetzen denean, Jesusen Bihotzarekiko herriaren sagarapenaren ituna berriztatzen da, kongregazio horrek herrian ematen duen laguntzagatik.	24/06/1946	24/06/1946
LET0076	Arrasateko Udalaren hainbat komunikazio.	LET0076_00001: Gorputz Hezkuntza eta Kirol Delegazio Nazionalaren diru laguntza Musakolako kiroldegia egiteko. Udalako Plaza berriaren obren ziurtagiria eta adjudikazioa. Udaltzaigoaren bulegorako pertsona baten beharra. LET0076_00002: Herriko kaleen izenak aldatzeko komunikazioa eta araudia.	19/06/1975	11/04/1979
LET0077	Arrasateko san Frantzisko komentuari buruzko datu historikoak.	LET0077_00001: San Frantzisko komentua eraiki zeneko datuak. LET0077_00003: Komentuko aldararen datu artistikoak. Karmelo Etxegaray memorialetik kopiatuta. LET0077_00004: Marques de Regalia alkatearen eskutik, Arrasateko Udalak Komentuaren jabetza hartzen du 1850ko martxoaren batean. Plenoaren akta. LET0077_00006: Udalak komentuen jabetza hartu arte, 1840tik 1850era desjabetzerako hainbat komunikazio. Udal aktaren liburutik ateratakoak. LET0077_00010: Komentuan latinezko klaseak emateko, irakaslearentzako gela bat eta etxe bizitzaren eskaera Udalari. Komentuko ortu aldeko ormak botatzeko aurrekontuak. Udal aktaren liburutik ateratakoak. LET0077_00012: 1954ean Frantziskotarrak komentura etorreraren ospakizuna. Egitarauaren fotokopia. LET0077_00013: Cantabriako eliz probintziatik Arrasateko Udalari bidalitako gutuna. Komentuan Frantziskotarrak izan duten ibilbidea kontatzen da eta komentuen jabetza frantziskotarren eskura buelta dadila eskatzen da. LET0077_00016: "Memoria de Garibay" liburutik ateratako komentuen inguruko informazioa. LET0077_00018: 1849tik 1892ra komentuen erabileraren inguruan hainbat ohar, Udal plenoen aktetatik ateratakoak. LET0077_00019: Frantziskotarren komentuko datuak eta diru kontuak eskuz idatzita.	07/02/1954	01/10/1966
LET0078	Arrasateko udaleko 1924ko memoriatik jasotako datu historikoak.	Arrasaten eraiki eta berriztu ziren etxebizitzaren zerrenda eta udal agintarien zerrenda.	01/01/1970	01/01/1979
LET0079	Hiri Antolamendu Plan Orokorrean Arrasateko hiriguneari buruz jasotako datuak.	LET0079_00002: Arrasateko hiriguneko jatorria eta bilakaera. LET0079_00004: Arrasateko Udal Artxiboan jasotako informazio mikrofilmatuaren zerrenda. LET0079_00006: Dokumentazioaren inbentarioa.	01/01/1980	01/01/1987

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0080	Hauteskunde Orokorren emaitzen konparaketa Arrasaten 1977, 1979 eta 1982 urteetan.	Hauteskunde Orokorren emaitzen konparaketa Arrasaten. Alderdi politikoak: PNV, PSOE, HB, EE, UCD+AP eta beste batzuk. Gipuzkoako diputatuen datu orokorrak eta senatarien eta diputatuen banaketa, 1982ko Hauteskunde Orokorren ondoren. Senatarien eta diputatuen banaketa, Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan, 1982ko Hauteskunde Orokorren ondoren.	01/01/1983	01/01/1983
LET0081	Arrasateko errotei eta burdinolei buruzko informazioa. Herriko iturriak.	Iturrien zerrenda: Aitaburu, Udala auzoko Arteta baserriaren txabola inguruan. Arrikutz, Udala auzoan Besaideko bidean. Besaidekoa. Angelaguzte, Sabolaundin, Besaaidetik Anbotora doan bide azpian. Madarixa eta kobate inguruan, Echebarriren txabola ostean. Otaixu, Madarixatik Udalarako bidean.	01/01/1970	01/01/1979
LET0082	Arrasateko eta Aretxabaletako hainbat jai eta ospakizunei buruzko informazioa.	LET0082_00001: Kurtzeberriko jaia, 1930. Aretxabaletako Udalak diru-laguntza ematen du gurutze jartzearen 2. urteurrena ospatzeko, irailaren 14an. LET0082_00002: Arrasateko hiri gutunaren VII mendeurrenaren pregoiaren kopia, 1960. LET0082_00003: Maritxu kajoi jaiaren egitaraua, 1982.	01/01/1930	02/10/1981
LET0083	Jose Letonak Pedro de Viteriren omenezko monumentuari eta Felix Aranori buruz bildutako informazioa.	LET0083_00001: Felix Aranori Alfontso XII.aren Zaldun Orden Zibilaren izendapenari buruzko informazioa, 1925. LET0083_00002: Pedro de Viteriren monumentuari buruzko informazioa, Sevillako Unibertsitateko Gerardo Perez Calerok egindako eskaerari erantzunez. Datuak: Inaugurazio datak, monumentua eraikitzeke Batzorde-betearazlearen eraketa. LET0083_00003: Monumentuaren kostua eta diru iturriak, aurrez egindako lehiaketarako aurkeztutako proiektuen eskultore zerrenda. LET0083_00004: Lehiaketaren emaitzak. LET0083_00005: 1910eko urtarrilaren 14ko Gipuzkoako Boletinan agertutako Viteri monumentua egiteko lehiaketaren deialdia. LET0083_00006: Monumentuaren planoak. LET0083_00007: Monumentuaren obrak egiteko sinatutako eskritura.	01/01/1970	01/01/1979
LET0084	Jose Letonak Urolako eta Vasco-navarro trenari buruz bildutako informazioa.	LET0084_00002: Urolako trena inauguratu zeneko datuak. LET0084_00003: Arrasateko Udak Akta liburutik Vasco-navarro trenaren inguruan jasotako informazioa. LET0084_00005: Vasco-navarro trenaren datuak. Proiektuaren onarpena, diru iturriak lortzeko Arrasateko Udalak hartutako neurriak, obren zati ezberdinen bilakaera, inaugurazioak, trenaren itxiera. LET0084_00006: Trena eraikitzeke zeuden arrazoiak eta beste datu batzuk.	01/07/1979	01/12/1981
LET0085	Arrasateko eta Gipuzkoako populazioari buruzko informazioa.	LET0085_00001: Gipuzkoako hainbat hiri eta herrietako biztanleria, 1981tik 1985era. LET0085_00002: Arrasateko populazioa 1877 eta 1986 artean. LET0085_00003: Arrasateko populazioaren ezaugarriak 1881ean kale eta auzoen arabera antolatuta eta baita egoera sozilararen arabera. Auzoak: Uribarri, Udala, Garagarza, Sta Ageda, San Andres, Veneras, Musakola, Zaldivar eta erdigunea. Egoera soziala: generoaren arabera bereziten dira ezkongabeak, ezkonduak eta alargunak. Etorकिनен kopuru orokorra azaltzen da. LET0085_00004: Gipuzkoako herrien populazioa 1985ko martxoaren 31an. LET0085_00005: 1914an Arrasateko erroldan erregistratutako biztanleak eta errolda kanpo gelditzen direnak, beste herrietan erroldatu direlako.	01/01/1970	01/01/1979
LET0086	Monterron familiaren Palagonia dukerria titulua Mondragon dukerria tituluagatik aldatzeko udalak hartutako erabakiaren transkripzioa.	Monterron familiak Arrasate herrian izan duen parte-hartzea eta eskainitako laguntza azaltzen da.	06/12/1950	06/12/1950
LET0087	Arrasateko udaletxearen obra eta berrikuntzei buruz Jose Letonak bildutako informazioa.	LET0087_00001: Garay arkitektoak 1937an egindako erreformaren memoria laburra. LET0087_00002: Udaletxearen eraikitze prozesuari buruzko datuak, 1762tik 1771era.	01/01/1970	01/01/1979
LET0088	Arrasateko udalaren diru sarreren eta irteeren aurrekontuak.	LET0088_00001: Diru sarreren aurrekontuak eta 1981eko aurrekontuekin konparaketa portzentuala. LET0088_00004: Gastuen aurrekontuak.	01/01/1970	01/01/1979

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0089	Arrasateko Institutoari izena jartzeko proposamenak.	Izena aldatzeko herriko pertsona famatuen izenak proposatzen dira eta horiek egindakoa azaltzen da: Dr. Bañez, Dr. Bolibar, Dr. Jaureguibarria, Juan Maria Eguren eta Esteban de Garibay.	13/01/1981	13/01/1981
LET0090	Bergarako frontoiaren alokailuari buruzko udalaren erabakiaren transkripzioa.	Luis Lascurainek, Bergarako alkatea, eta Jacinto Madinak, Tiburcio Gabilondo Lizarralde oinordekoen izenean, sinatutako kontratua Bergarako frontoiaren alokairuarekin jarraitzeko.	10/12/1966	10/12/1966
LET0091	Bergarako udalaren jakinarazpena Debagoieneko Mankomunitateko armarría aukeratzeko epai-mahai izendatuz.	Armarría diseinatze "Ideien lehiaketa" antolatzen da eta epai-mahairen kideak izango direnei jakinarazten zaie: Jose Maria Unzueta, Jose Letona, Iñaki Zumalde, Miguel Oquina eta Amador Morali.	27/02/1978	27/02/1978
LET0092	Iparragirren heriotzaren 100 urteurrena ospatzeko argitaratutako informazioaren transkripzioa.	Iparragirri omenaldia prestatzeko Urretxuko udalak eratutako komisioak egindako txostena. Omenaldian egingo diren ekitaldiak: eraiki nahi den mausolearen datuak, kultur hamabostaldia, argazki erakusketa eta beste batzuk. Horiek aurrera eramateko dauzkaten zailtasunak aipatzen dira eta diru iturriak lortzeko egingo direnak ere.	01/01/1980	01/01/1981
LET0093	Jose Maria Azkarraga "Lurgorri"ri buruzko datu biografikoak eta prentsa mozkinak.	Euskal kultura sustatu zuen eta Amaiur batailoian burrukatu zuen preso jauzi arte. Duesoko penalean epaitu zuten eta 1937an fusilatua zuten Derioko kanposantuan. LET0093_00001: Auñamendi entziklopediatik ateratako datu biografikorekin egindako fitxa. LET0093_00002: Datu biografikoak LET0093_00004: 1977ko abenduaren 16an, bere hilketaren 40. urteurrenaren harira, "Iradier" zinean egindako omenaldiaren prentsa artikulua. LET0093_00005: Rafael Garatek " Diario de un condenado a muerte" publikatutako artikulua.	16/12/1977	16/12/1977
LET0094	Salturri baserriaren eta haren ondasunen balioztatzea.	Jose Maria Berecibarrek eskatuta, Luis de Azcoaga lur-neurtzaileak egindako Meatzerreka auzoko Salturri baserriaren eta haren ondasunen erlazioa eta balioztatzea. Dokumentua 1886ko azaroaren 2koa da.	01/01/1970	01/01/1979
LET0095	Juan Bautista Egaña "Mondragones" pilotariari buruzko datu biografikoak eta prentsa mozkinak.	LET0095_00001: Datu-fitxa. Bergaran egindako omenaldia. Data 1933/05/28. 1933an onartzen da Arrasateko Frontoian bere omenez oroitarri bat jartzea. LET0095_00002: "Mondragones"en omenez frontoian jarritako oroitarriaren transkripzioa. LET0095_00003: Datu biografikoak. LET0095_00004: Mondragones I eta Mondragones II pilotarien datu biografikoak. LET0095_00005: Heriotzaren berria jasotzen duen Juan Eguizaleren prentsa artikulua eta horren transkripzioa. LET0095_00009: La Voz de España egunkariaren argitaratutako artikulua, momentuko pilotarien kronikarekin batera "Mondragones"-en heriotza kontatzen duena. Azken honen transkripzioa. LET0095_00011: "La Voz de España" egunkarian Francisco Ezquiagaren artikulua "Mondragones" pilotariaren heriotzaren harira. Bere bizitzaren datu biografikoak aipatzen dira. Artikulu horren transkripzioa.	13/04/1965	14/04/1965
LET0096	Fernando Azkargorta pintorearen biografia eta heriotzari buruzko informazioa jasotzen duen prentsa mozkinak.	"La Voz de España" egunkarian Alvarez Emparanzak argitartutako artikulua.	16/03/1973	16/03/1973
LET0097	Iñaki Azpiatzuren "El caso de los católicos vascos: 7 meses y 7 días en la España de Franco" kopia.	Iñaki Azpiatzu euskal apaiza azpeitiarrak Franco garaian euskal apaizei gertatutakoak kontatzen ditu. Erbestera ihez egin zuen 1937an eta Buenos Airesen hil zen 1988an.	01/01/1964	01/01/1964
LET0098	Felix Azpilikuetak sinatzen duen 1957ko Arrasateko Hiri Antolamendu Plan Orokorren memoria	LET0098_00003: Memoriaren helburua eta jasotzen duen erlazioa. LET0098_00004: Arrasate herriaren aurrekariak: datu geografikoak, geologikoak eta historikoak. LET0098_00005: Hazkunde demografikoaren inguruko datuak eta horiek dakartzaten ondorioak. Testuan azaltzen da datuen taulak eta horiek duten erlazioa txostenarekin. LET0098_00013: Komunikabideak: trena, errepideak, saihesbidea eta dauden arazoak konpontzeko eman daitezkeen erantzunak. LET0098_00016: Errekak, berde guneak eta kirol guneak. LET0098_00018: Planaren ikuspegi orokorra. Planaren Poligono banaketa: zerrenda eta ezaugarriak.	01/11/1957	01/11/1957
LET0099	Angel Balanzategui "Tiburón" egunkari saltzailearen erretiroari buruzko prentsa mozkinak.	Egin egunkarian argitaratutako artikulua. Bere lanaren datuak ematen dira.	14/01/1987	14/01/1987

Kodea	Izenburua	Edukia	Hasiera Data	Bukaera Data
LET0100	Debagoienero bainuetxeei buruzko informazioa	<p>LET0100_00001: Aretxabaletako bainuetxeko liburuxka. Deskripzio geografikoa, uren konpozizioaren datuak eta horien osasun onurak, bainuetxearen datuak, hotelaren ezaugarriak, prezioak eta zelan iritzi bertara.</p> <p>LET0100_00012: "Curiosidades de nuestro pueblo" artikulua "Baños de Aretxabaleta" inguruan, Madoz Geografiko eta Historiko Hiztegitik jasotako informazioa: datu historikoak eta uren konpozizioari buruzkoak.</p> <p>LET0100_00013: Santa Agedako bainuetxea. "Fundazioaren Historia" jasotzen duen inprimakia. Datu historikoak, Aita Benito Mennik sortutako zahar-egoitza, Canovas del Castilloren hilketa, bainuetxearen erosketa eta datu orokorrak.</p> <p>LET0100_00030: Santa Agedako ospitale psikiatrikoaren egoera salatzen duen Beatriz Mañasen bi artikulua.</p> <p>LET0100_00032: Jose Maria Urkiak Jose Letonari bidalitako gutuna.</p> <p>LET0100_00033: Jose Maria Urkiak Gipuzkoako bainuetxeei buruz egindako tesiaren prentsa artikulua.</p> <p>LET0100_00034: Rafael Cristobal, Santa Agedako psikiatrikoko zuzendariari buruzko berria.</p> <p>LET0100_00035: Santa Agedako bainuetxeari buruzko informazioa.</p>	1890/01/01	16/08/1983
LET0101	Arrasateko Udal Musika Banda.	Musika Bandaren argazkia 1920an eta musikarien zerrenda.	01/01/1920	01/01/1920
LET0102	Ignacio Barandiaranek Munibe aldizkarian argitaratutako "Excavaciones en Aitzorrotz 1968" artikulua eta Aitzorrotzeko 1976ko erromeriaren egitaraua	<p>LET0102_00001: Ignacio Barandiaranen memoria.</p> <p>LET0102_00002: Aitzorrotzeko Erromeriaren egitaraua.</p>	01/01/1970	02/05/1976
